



SÍNDROME DE DRAVET
FUNDACIÓN

Dravet Síndromea epilepsia genetiko arraro bat da eta 16.000 mila pertsonatik 1ek pairatzen duela baieztatuta izan arren, milaka dira Europan ezagutzen ez diren kasuak. Dravet Síndrome Fundazioak gaixotasunaren inguruko ikerketa sustatzea du helburu nagusia eta síndromearen eta gaixotasunetik eratorritako efektuak murrizten eta gabetzen lagunduko duten tratamendu eraginkorrak aurkitzea nahi dute.

15 DRAVET Elkartearekin solasean:

—Gaur konturatu naiz bizitzeko zenbat gauza behar ditudan. Adibidez, niretzat beharrezkoa da txalo egitea.

—(Txaloak....)

—Neretzat beharrezkoa da barre egitea.

—(Barreak...)

—Eta batzuetan baita negar egitea ere.

—(Negarra...)

—Dravet Síndromea daukaten haurren beharrak ase nahian ari da Dravet Síndrome Fundazioa. Batez ere, diagnostikoa garaiz egitea, tratamendua eta ikerketa. Horretarako denon laguntza behar dute eta txalo bero bat ere bai.

—(Txaloak eta irrintzia....)



16 ZALDI ZOROARENA

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Beñat Gaztelumendi Arandia

Ahotsak: Nerea Urbizu Ruiz eta Gartxot Unsain Letona

Gorputzean
zaldi zoro bat daukat
gorputzean
ibiltari.

Gorputzean
lurrikara bat daukat
gorputzean
dardara bi.

Zaldi zoroa ta ni
munduan zehar goaz
bideak pitzaturik
ba al duzu teilaturik?

Zure arnas
barean hartzen dut aterpe
lehertzen naizen aldiro.

Itsasoak,
izarrak eta belardiak
nigan pizten
zaizkit berriro. (BIS)

Gorputzean
hego haizea daukat
gorputzean
harro dabil!

Gorputzean
ibai zakar bat daukat
gorputzean
lasai hadi!

Hego haizea ta ni
munduan zehar goaz
hankak busti-bustirik
ba al duzu abestirik?

Zure arnas
barean hartzen dut aterpe
lehertzen naizen aldiro.

Itsasoak,
izarrak eta belardiak
nigan pizten
zaizkit berriro. (BIS)